

Поручик ^{Тр} Кизе



ЛОКРОССНАБФИЛЬМ
НА ДНЯХ ПРЕМЬЕРА
ЗВУКОВОЙ ГОВОРЯ-
ЩИЙ ХУДОЖ. ФИЛЬМ
СЦЕНАРИЙ ЮР. ТЫНЯНОВА
РЕЖИС-А. ФАЙНЦИММЕР. КОМПОЗИ-
ТОР-С. ПРОКОФЬЕВ. ОПЕРАТОР АКОЛЬ-
ЦАТЫЙ. ЗВУКООПЕР-БЕЕРВАЛЬД. КО-
СЫРЕВ ХУДОЖ. П. СНОПКОВ. КАРТАШЕВ
В ГЛАВН. РОЛЯХ ЗАСЛУЖЕНН. АРТИСТЫ РЕСП. МЯНШИН
И РОСТОВЦЕВ ЗАСЛУЖ. ДЕЯТ. ИСК. Б. ГОРИН-ГОРЯИНОВ
АРТИСТЫ: С. МАГАРИМ, Н. ШАТЕРНИКОВА, ЭР. ГАРИН
ПРОИЗВ. ФАБРИКИ „СОВЕТСКАЯ БЕЛОРУСЬ“

YURI TINIANOV

Aiphatu tenieneordea

Josu Zabaletaren itzulpena



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

1

Paulo enperadorea leiho irekiaren ondoan zegoen erdilotan. Bazkalondoko orduan, janaria gorputzarekin borroka geldian ari denean, erabat debekatuta zegoen traba egitea. Besaulki garai batean zegoen erdilotan, atzetik eta alde bietatik beirazko bionbo batek ezkutatuta. Paulo Petrovitx bazkalondoko ohiko amets bat ari zen amesten.

Gatxinan zegoela, ongi inausitako lorategian, eta txoko batetik kupido potolo bat ari zitzaiola begira, familiarekin nola bazkaltzen zuen. Handik pixka batera kirrinka-hots bat entzuten zela urrutitik. Bide-zolako zulo artetik zetorren, beti berdin eta jauzika. Hiru adarreko kapela bat, zaldi baten galapa, kabriolet baten pertika, hautsa begiztatu zituela urrutitik. Mahai azpian ezkututzen zela, hiru adarreko kapelak gudu-mezularia esan nahi zuelako. Peterburgotik bila zetozkion.

–Nous sommes perdus...¹ –hasten zela mahai azpitik emazteari ahots erlastuz oihu egiten, hura ere ezkuta zedin.

Mahai azpian ezin zuela arnasarik hartu, eta kabrioletaren pertikak bereganaino sartzen zitzaizkiola.

Mezulariak mahaipera begiratu bat egin, Paulo Petrovitx aurkitu eta esaten ziola:

–Maiestatea. Berorren Maiestatearen ama hil egin da.

Baina ez al zen Paulo Petrovitx mahaipetik arrastaka ateratzen hasten, mezulariak koxkorreko bat ematen ziola bekokian eta oihu egiten zuela:

–Guardia!

Paulo Petrovitxek eskuaz kolpea saihestu nahita, euli bat harrapatu zuen.

Horrela bada, eserita zegoen, bere begi grisak Pabloskyko jauregiko leihorantz biratu zituen, janariak eta esturak itorik, eskuan euli batek burrunba egiten ziola, eta belarriak zutitu zituen.

Norbaitek oihu egin zuen leihopean: “Guardia”.

¹ Galdurik gaude (jatorrizkoan frantsesez)

2

Preobrazhenskyko Erregimentuaren bulegoko bulegari militarra Siberiara erbesteratu zuten, zigortuta.

Bulegari berria, mutil gaztea oraindik, mahaian eseri eta idazten ari zen. Eskuak ikara egiten zion, berandu zebilelako.

Seietarako bukatu behar zen, beranduenera ere, erregimentuarentzako aginduaren kopia, guardiako ofizialak jauregira eraman zezan, eta han, Bere Maiestatearen laguntzaileak bederatzietan enperadoreari aurkez ziezaion, antzeko beste batzuekin baturik. Atzerapena krimena zen. Erregimentuko bulegaria oso goiz jaiki zen, baina agindua hondatu, eta orain beste kopia bat ari zen egiten. Lehenengo orrian bi akats egin zituen: Siniukhaiev tenientea hildakoen artean jarri zuen, zerrendan Sokolov komandante hil berriaren ondotik zihoalako, eta zentzugabeko erredakzio-hutsegite bat egin zuen: “Aipatu Steven, Rubin eta Asantxeiev tenienteordeak izendatzen dira” idatzi ordez, “Aipatu, Steven, Rubin eta Asantxeiev tenienteordeak izendatzen dira” idatzi zuen. Lehenengo izena idaztera zihoanean, ofizial bat sartu zen, haren aurrean zutitu, eta, gero, berriro aginduaren aurrean esertzean, nahastu egin zen, eta koma bat idatzi zuen lehenengo izenaren aurrean.

Bazekien agindua seietarako prest ez baldin bazegoen, “atxilotu” aginduko zuela ofizial nagusiak, eta atxilotu egingo zutela. Horregatik, hain zuzen, eskua ez zebilkion ongi, geroz eta geldiroago idazten zuen, eta bat-batean tinta-orban handi bat isuri zitzaion aginduaren gainera, iturri bat bezain eder.

Hamar minutu baizik ez ziren geratzen.

Bulegariak atzera egin zuen, eta pertsona bizi bati bezalaxe begiratzen zion ordulariari; ondoren, behatzak gorputzetik bereizita baleuzka eta beren gisara balebilzkio bezala, orri garbiren baten bila hasi zen paperen artean; han, ordea, orri garbirik ez zegoen, apaletan baitzeuden denak, kontu handiz eratutako pila handi batean.

Horrela, bere etsimenean, eta bere buruaren aurrean zintzo azaltzeko beste asmorik gabe, bila ari zela, are harrituago geratu zen.

Beste paper bat ere, eta ez garrantzia gutxiagokoa, oker idatzita zegoen.

Txosten ofizialetan zenbait hitz erabiltzeko debekuari buruzko enperadorearen aginduaren 940. eranskinaren arabera, ez zen erabili behar “ikuskatu” hitza, ikuskatzea egin baizik, ezta “bete” hitza ere, konplitu baizik, ez “zaintza”, guardia baizik, eta ez inola ere “tropa”, destakamendu baizik.

Erakunde zibilei zegokienez, berriz, ez zen “maila” idatzi behar, klase baizik, ez

“elkarte”, baltzu baizik, eta “herritar” idatzi ordez, dendari edo burges txiki erabili behar zen.

Hori, ordea, letra txikiz idatzita zegoen, hantxe, horman, bulegariaren begien aurrean, zintzilikatuta zegoen 940. aginduaren beheko aldean, eta irakurri gabe zeukan, baina "ikuskatu" eta gainerakoei zegokiena lehenengo egunean ikasia zuen, eta ongi gogoratzen zuen.

Araktxeiev baroiari zuzendutako eta erregimentuko komandanteak sinatzeko prestatutako orrian honela jartzen zuen:

Zure goentasun horren izenean San Peterburgo inguruen eta atzerrirantz ateratzen diren zerbitzuen zaintzaren ardura duten tropak ikuskaturik, ohore handiz jakinarazten dizut, zuzen bete dela dena...

Eta ez hori bakarrik.

Berrito idatzi berria zuen txostenaren lehenengo paragrafoak honela zioen:

Jaun Goren Guztiz Estimatu.

Haurrik mukizuenak ere bazekien, ongi jakin ere, trataera hori, era horretan, lerro bakarrean idatzita, eta mendeko baten txostenean, Araktxeiev baroia bezalako pertsona bati zuzendutako txosten batean batez ere, bi lerrotan behar zela idatzi, nahita nahi ez:

Jaun Goren

Guztiz Estimatu:

eta horrek mendekotasuna eta jendetasuna adierazten zuela.

Eta zaintzaren eta gainerakoaren ondoren garaiz erreparatu eta ohartu ez izanaren errua bota baziezaioketen, Jaun Goren Guztiz Estimatuarenean berak nahastu zituen kopiak.

Eta zer egiten zuen ohartu gabe, eseri eta orri hura zuzentzen hasi zen bulegaria. Berrito kopiatzerakoan, bertan ahaztu zuen agindua, askoz presazkoagoa bazen ere.

Bulego-mutila ofizialaren aldetik aginduaren bila azaldu zenean, bulegariak ordulariari eta mutilari begiratu, eta Siniukhaiev teniente ohiaren orria eman zion bertatik.

Ondoren eseri eta, oraindik ere ikara eginez, idatzi zuen: goentasun, destakamendu, guardia.

3

Bederatziak puntuan kanpaitxo entzun zen jauregian, enperadoreak sokatik tira eginda. Enperadorearen landa-laguntzailea bederatziak puntu-puntuan sartu zen txostenarekin Paulo Petrovitxen aurrera. Paulo Petrovitx bezperako jarrera berberean zegoen eserita, leiho ondoan, beirazko bionboak estalita.

Baina oraingoan ez zegoen lotan, ez erdilotan, eta haren aurpegiera ere beste era batekoa zen.

Laguntzaileak bazekien, jauregian denek bezala, enperadorea haserre zegoela. Baina bazekien, baita ere, haserreak arrazoiak nahi izaten dituela eta, zenbat eta gehiago aurkitu, orduan eta gehiago pizten dela. Beraz, txostenak ez zuen inondik ere falta behar.

Beirazko bionboaren eta enperadorearen bizkarraren aurrean irmo jarri, eta berria eman zuen.

Paulo Petrovitx ez zen laguntzailearengantz biratu. Astun eta astiro hartzen zuen arnasa.

Bezperako egun osoan ezin izan zuen jakin bere leihopean "Guardia" nork oihukatu zuen, eta gauean bi bider esnatu zen ezinegonik.

"Guardia" zentzurik gabeko oihua zen, eta Paulo Petrovitxen haserrea hasieran ez zen handi-handia, amesgaizto bat izan eta bukaeraraino ikustea eragozten zaion orori gertatzen zaion bezala. Zeren ametsa ongi bukatzeak ere zori ona esan nahi baitu. Eta jakin nahia ere bazen: nork eta zergatik egin zuen oihu "Guardia" non eta bere leihopean. Baina jauregi guztian, beldurrez zalapartan, gizon hura aurkitu ezin izan zutelarik, are gehiago piztu zitzaion haserrea. Kontua zera zen: jauregian gerta zitekeela norbaitek bazkalondoko orduetan traba egitea eta ez jakitea nor zen. Inork ez zekien, gainera, zertarako egin zen oihu hura: "Guardia". Asmo txarreko damuturen baten oharpen bat ere izan zitekeen. Edo, bazitekeen hantxe, sastraken artean, dagoeneko hiru aldiz miatu bazituzten ere, norbaiti eztarrian trapu bat sartu eta ito izana. Lurrak irentsita bezalaxe desagertua zen. Beharrezkoa zen... Baina zer behar zen egin... aurkitu ez baldin bazuten.

Guardia gehiago jarri behar ziren. Eta ez hemen bakarrik.

Paulo Petrovitxek, biratu gabe, zuhaixka berde karratuetara begiratu zuen; Trianongoen ia berdinak ziren. Inausita zeuden. Baina haien artean inor ote zebilen jakiterik ez zegoen.

Eta, laguntzaileari begiratu ere gabe, eskuin eskua atzerantz luzatu zuen. Laguntzaileak bazekien zer esan nahi zuen horrek: enperadorea oso haserre

zegoenean, ez zen biratzen. Trebezia handiz Preobrazhenskyko erregimentuko guardiarako agindua eskuan jarri zion, eta Paulo Petrovitx arretoa handiz hasi zen irakurtzen. Ondoren berriro etzan zen atzerantz, eta laguntzailea laneko mahaitik luma hartu, tintontzian busti, astindu eta eskura arin-arin emateko moldatu zen; horretan, hala ere, bera zikindu zen tintaz. Unetxo bat baizik ez zuen behar izan horretarako. Segituan orrialde sinatua hegan zihoan laguntzailearengana. Laguntzaileak orriak eman ahala, orriak sinaturik edo irakurririk, besterik gabe, bata bestearen atzetik hegan zihoazen laguntzailearengana. Ohituta zegoen jokaera horretara eta horrela gertatuko zela espero zuen; horretan, ordea, enperadorea jauzi batez jaitsi zen besaulki goratutik.

Pauso txikiak eginez laguntzailearengana ondoratu zen. Aurpegia gorri zuen, eta begiak ilun.

Ondo-ondoraino hurbildu zitzaion eta laguntzaileari usaina hartu zion. Susmoren bat zuenean horrela egiten zuen enperadoreak. Ondoren laguntzaileari mahukatik bi behatzez gogorki heldu eta atximur egin zion.

Laguntzailea firme zegoen eta orriak eskuan zituen.

–Ez dakik hire lana egiten, mutil –esan zion Paulok ahots erlastuz–, atzetik hator.

Eta beste atximur bat egin zion.

–Kenduko diat nik mutirikeria hori, ospa hemendik.

Eta laguntzailea aterantz urrundu zen, atzeraka ibiliz.

Behin atea zaratarik gabe itxi zelarik, Paulo Petrovitxek lepoko zapia bizkor-bizkor askatu eta alkandorako bularraldea urratzen hasi zen isilik, ahoa estutu zitzaion eta ezpainak ikaratan zituen.

Haserrealdi bortitz baten hasiera zen.

4

Preobrazhenskyko erregimentuko guardia-agindua, enperadoreak sinatua, hark zuzenduta zegoen. “Aipatu, Steven, Rybin eta Asantxeiev tenienteordeak izendatzen dira” hitzak zuzendu egin zituen: lehenengo p-aren ondoren H handi bat jarri zuen, eta gainean idatzi zuen: Aiphatu tenientea guardiara. Gainerakoan ez zen eragozpenik izan.

Agindua bere lekura bidali zen.

Komandanteak agindua jaso zuenean, luzaro egon zen Aiphatu deitura bitxi horretako tenienteorde hura nor ote zen pentsatzen. Preobrazhenskyko erregimentuko ofizial guztien zerrenda hartu zuen, baina hartan ez zen ageri deitura horretako ofizialik. Soldaduen artean ere ez zen halakorik. Ezin ulertu, baina ez zegoen. Mundu osoan bulegariak baizik ez zuen ulertuko, baina inork ez zion ezer galdetu, eta berak ere ez inori ezer esan. Enperadorearen aginduak bete egin behar dira, ordea. Baina ezin zitekeen bete, erregimentu osoan ez baitzegoen Aiphatu tenienteorderik.

Komandanteari Araktxeiev baroiarengana jotzea bururatu zitzaion. Baina segituan baztertu zuen asmoa. Araktxeiev baroia Gatxinan bizi zen, eta ondorioa ez zen segurua, gainera.

Eta estuasunen batean zegoenean beti familiara jo ohi zenez, komandante hark bazuen Sablukov, enperadorearen landa-laguntzailea, eta galapan abiatu zen Pabloskyrantz.

Pabloskyn sekulako nahastea zegoen eta hasieran laguntzaileak inola ere ez zuen komandantea hartu nahi izan.

Ondoren gogo txarrez entzun zion eta deabruetara bidali nahi zuen, hura gabe ere nahikoa eta gehiegi bazuelako, baina horretan bekozkoa zimurtu zuen, komandanteari begiratu eta bat-batean aldatu zitzaion begirada hura: maltzurto egin zen.

Enperadorearen laguntzaileak geldiro hitz egin zuen:

–Enperadoreari hitzik ere ez. Zuk Aiphatu tenienteordea bizirik balego bezala jokatu. Izendatu ezazu guardiarako.

Komandanteari begiratu gabe, mengeltzen ari baitzen, hor konpon egin zion, firme jarri zen, eta alde egin zuen.

5

Siniukhaiev tenientea hutsaren hurrengo teniente bat zen. Aita Araktxeiev baroiaren sendagilea zuen, eta baroiak, indartu zuten pastillen esker onez, haren semea erregimentuan sartu zuen isil-gordean. Baroiari gustatu egin zitzaion seme haren itxura tolesgabea eta ez oso buruargia. Erregimentuan ez zen inoren lagun mina, baina ez zituen saihesten ere kideak. Ez zen berritsua, tabakoa gustatzen zitzaion, ez zen nahasten emakume-kontuetan, eta, ofizial batentzat ausardia handiko eginkizuna ez bazen ere, “maitasun-oboea” jotzea gustatzen zitzaion.

Militar hornidura garbi-garbi edukitzen zuen beti.

Erregimenturako agindua irakurri zenean, Siniukhaiev zutik zegoen eta, firme zegoenean ohi zuen bezala, ez zen ezertan pentsatzen ari.

Horretan, bere izena entzun zuen, eta belarriek ikara egin zioten, burua beren gauzetan dutenean espero ez zuten zigorkada bat hartzen duten zaldiei gertatzen zaien bezala.

“Siniukhaiev tenientea, sukarrez hila, lizentziatutzat emango da”.

Orduan, hala gertatu baitzen, komandanteak, agindua irakurririk, Siniukhaiev beti egon ohi zen lekura begiratu zuen nahi gabe, eta haren eskua paperarekin batera jaitsi zen.

Siniukhaiev bere lekuan zegoen, beti bezala. Hala ere, komandanteak berriro irakurri zuen agindua; egia esan, ez oso garbi; Steven, Asantxeiev eta Aiphaturi buruzkoa irakurririk, bukaeraraino irakurri zuen. Guardia aldaketa hasia zen, eta Siniukhaievek besteekin batera hartu behar zuen parte desfilean. Hori egin ordez, ordea, bertan geratu zen zutik.

Aginduetako hitzak hitz bereziak, giza solasaren desberdinak balira bezala entzuten ohituta zegoen. Ez zuten edukirik, ez esanahirik, beren bizitza eta aginpide berekia baizik. Kontua ez zen agindua betetzen zen ala ez zen betetzen. Aginduak, betetzen ez bazen ere, aldatu egiten zituen erregimentuak, kaleak eta jendea.

Aginduaren hitzak entzun zituenean, hasieran, zegoen lekuan geratu zen zutik, ezer entzun ez balu bezala. Hitzen atzetik zihoan Gero kendu zitzaizkion zalantzak. Irakurritakoa berari buruz zen. Eta bere zutabea abiatu zenean, zalantzatan hasi zen ea bizirik zegoen ala ez.

Eskua eskutokian pausatuta, uhal ongi estutuek eragindako trabaren bat, goiz horretan bertan koipeztatutako sablearen pisua, horiek sentitzean, bizirik sentitzen zen, baina bazen gaizki zihoan zerbait, erremediorik gabe hautsitako zerbait. Ez zitzaion bururatu ere egin aginduan akatsen bat izan zitekeenik. Oso bestela baizik, bizirik

bazegoen, okerren batengatik zegoela iruditzen zitzaion, hutsegiteren baten ondorioz. Zabarkeriaz ez zen ohartu eta ez zion inori jakinarazi.

Nolanahi ere, desfileko irudi guztiak hondatzen ari zen, plazan tantai bat bailitzan egonez. Mugitu behar zuenik ere ez zitzaion bururatzen.

Desfilea bukatu bezain laster, komandantea tenienteari oldartu zitzaion. Sutan zegoen. Zorte handia izan zuten enperadorea desfilea ikusten ez egotea, ordu hartako beroagatik, Pabloskyn baitzegoen atsedeten. Komandanteak gustura orro egingo ziokeen: ziegara; baina hori baino hots ozenagoa beharko zuen haserrea baretzeko, eta R on bat botatzeko gogoia ere bazuen: preso; horretan, ordea, ahoa itxi zitzaion, komandanteak ustekabeen euli bat harrapatu izan balu bezala. Eta halaxe egon zen minutu pare batez Siniukhaiev tenientearen aurrean.

Ondoren, harengandik izurriak jotako batengandik bezala urrundu eta bere bidetik joan zen.

Siniukhaiev tenientea, hildakoari zegokion bezala, hilda zegoela gogoratu zuen, eta baztertu egin zuen, ez baitzekien nola hitz egin horrelako batekin.

6

Paulo Petrovitx hara eta hona zebilen bere gelan, eta aldian behin gelditu egiten zen.

Entzuten hasten zen.

Enperadorea, botak hautsez estalita, bidaiako kapaz jantzita eta ezproiak kendu gabe ama oraindik ere arnasestuka ari zen gelan sartu eta atean kolpe bat jo zuenez gero, haserre bizia erresumin bizi bihurtu ohi zela ikusi zen; eta erresumin bizia, bi egunen buruan, beldurra eta samurtasuna bilakatzen zela.

Brenna basati batek kimerak jarri zituen Pabloskyko eskaileretan, eta jauregiko sabaiak eta hormak Cameron, jende guztiaren begietan hiltzen diren kolore samurren zaleak egin zituen. Alde batean giza-itxurako lehoien ahotzar irekiak; bestean sentimendu leuna.

Horrez gainera, jauregiko gela nagusian baziren bi lanpara zintzilik, Luis XVI.ak burua moztu baino lehentxeago oparitutakoak. Opari hori Frantzian bertan jaso zuen, oraindik ere Iparreko Kondea izenez bidaiatzen ari zenean.

Lanparak oso lan finekoak ziren: haien pantailek argia moteltzen zuten.

Baina Paulo Petrovitxek ez zituen piztu nahi izaten.

Marie-Antoinettek oparitutako ordulari bat ere bazen, jaspezko mahai baten gainean. Orduen orratza urrezko Saturno bat zuen, punta luze batekin, eta minutuena kupido bat, bere geziarekin.

Ordulariak eguerdia eta gauerdia adierazten zituenean, Saturnok Cupidoren gezia estaltzen zuen bere puntaz. Denborak maitasuna gainditzen duela esan nahi zuen horrek.

Ordularia ez zebilen, nolana ere.

Horrela, lorategian Brenna zegoen, hormetan Cameron eta, buruaren gainean, sabaiepeko hutsunean, Luis XVI.aren lanpara kulunkatzen zen.

Paulo Petrovitxek Brennaren lehoietako baten antz pixka bat ere hartzen zuen oso haserre zegoenean.

Orduan, berdin gerta zitekeen erregimentu osoari zigorra ezartzea edo norbaiti lepoa moztea, Don ibaiaren inguruan, zuzien argitan, edo bidal zitezkeen oinez Siberiarantz aliritzira soldaduak, bulegariak, tenienteak, jeneralak edo jeneral-gobernariak.

Tronuaren usurpatzailea, ama, hilda zegoen. Potemkinen espiritua erauzia zuen, behinola Iban IVak boiardoak ezabatu zituen bezala.. Potemkinen hezurak barreiatu eta haren hilobia lurrarekin berdindu zuen. Amaren gustuak ere ezabatu egin zituen.

Usurpatzailearen gustuak! Urrea, gela batzuk Indiako zetaz apainduta, beste batzuk Txinako porzelanaz apainduta, Holandako berogailuekin, eta beira urdinezko gela, tabakoa usaintzeko gela. Fartsa. Erromako eta Greziako dominak, hain harro erakusten zituenak! Bere jauregia urreztatzeke erabilarazi zituen.

Eta hala ere iraun egin zuen espirituak, iraun egin zuen gustuak.

Haren usaina sentitzen zen inguruan, eta horrexegatik zuen, agian, Paulo Petrovitxek bere solaskideei usaina hartzeko ohitura.

Eta bere buruaren gainean, frantses lanpara kulunkatzen zen, urkaturik.

Eta beldurra sartzen zitzaion. Enperadoreak airea falta Ez zuen emaztearen beldurrik, ez seme nagusienik, haietako edozeinek sastakatu bazezakeen ere sardexkarekin, eta tronuan eseri, beren amonaren eta amaginarrebaren ereduari jarraituz.

Ez zuen bere ministro alaiegitxoen eta jeneral goibelegitxoen beldurrik. Ez zion beldurrik inori, ez bere inperioko mendietan, paduretan, hondardietan bizi ziren eta imajinatu ere ezin zitzakeen berrogeita hamar milioi jopuek osatzen zuen plebeari. Ez zien beldurrik, banaka. Elkarturik itsaso bat ziren, eta ito zitekeen hartan.

Eta San Peterburgoko palazioa zangaz eta postu aurreratuz inguratzeke eta zubi altxagarri katedun bat jasotzeke agindu zuen. Baina kateak ez ziren fidagarriak: zentinelak ziren zaintzaileak.

Eta haserre handiaren ondoren beldur handia iristen zenean, arazo kriminaletako bulegoa hasten zen lanean, eta norbait eskuetatik zintzilikatuta torturatzen zuten eta norbaiten azpian lurra zabaltzen zen, eta azpian borreroak zeuzkan zain.

Horregatik, enperadorearen gelatik orain pauso laburrak, gero luzeak, bat-batean estropezuka, entzuten zirenean, izututa begiratzen zioten denek elkarri, eta nekez egiten zuen inork irribarre. Beldur handia gelan zegoen.

Enperadorea hara-hona zebilen.

7

Siniukhaiev tenientea, komandantea errieta egitea joan baina errietan egin ez eta bertan behera utzita isildu zen leku berean zegoen.

Inguruan inor ez zegoen.

Desfilea egin ondoren, lasaitu egiten zen normalean, dotorezia-itxura uzten zuen, eskuak askatzen zituen, eta bere gisa ibiltzen zen kuartelean. Soinatalak askatzen zituen: zerbitzutik libre geratzen zen.

Etxean, ofizialen kuartelean, lebita askatu eta maitasun-oboera jotzen zuen tenienteak. Gero pipa bete eta leihotik begira egoten zen. Lorategi inaustuaren puska handi bat ikusten zuen; tsarinaren belardia deitzen zioten; orain hutsik zegoen. Sail hartan ez zegoen ezer nabarrik, ezer berderik, baina hondarretan luzaro irauten zuten zaldien eta soldaduen arrastoek. Erretzeari zegokionez, dena gustatzen zitzaion: pipa betetzea, tabakoa estutzea, erretzea eta kea. Erretzean beti izaten da zertan jardun. Aski zen arratsaldea etortzea, eta lagunengana ateratzen zen, edo paseatzera, besterik gabe.

Jende arruntaren jendetasuna gustatu egiten zitzaion. Behin, doministiku eginda, jaun batek esan zion: “Sudurrean trumoi handia ez denean, behatza konpontzaile”.

Lotara baino lehen, bere laguntzailearekin kartetan egiteko esertzen zen. Ordenantzari kontrakora eta panfilora jokatzeko erakutsi zion, eta ordenantzak galtzen zuenean, tenienteak karta sortaz kolpe bat ematen zion sudurrean, baina berak galtzen zuenean ez zion horrelakorik egiten. Azkenean, laguntzaileak garbitutako ekipaia ikuskatzen zuen, berak txirikordatzen, korapilatzen eta koipeztatzen zituen uhalak, eta lotara joaten zen.

Orain, berriz, ez zitzaizkion askatzen soinalak, giharrak tinko zituen oraindik, eta tenientearen ezpainetan ez zen arnasarik sumatzen. Zubi altxagarriaren aurreko plazari begiratzen zion, eta ezezaguna iruditzen zitzaion. Ordu arte, behintzat, behin ere ez zien erreparatu bulegoetako eraikin gorriko leihoen erlaitzei eta haien beira zikinei.

Zubiko errekarri biribilak ez ziren elkarren berdinak, elkarren antzik ez zuten anaiak bailiran.

San Peterburgo hiri militarra ordena gris batean zetzan, bere monasterioekin, bere ibaiekin eta bere zubi-begi lausoeekin; guztiz ezezaguna iruditzen zitzaion hiri bat.

Orduan ohartu zen hilda zegoela.

8

Paulo Petrovitxek landa-laguntzailearen pauso-hotsak entzun zituen, katu baten moduan joan zen beirazko bionboaren atzean zegoen besaulkiraino eta denbora guztian hantxe egon izan balitz bezain zurrun eseri zen.

Bazekien bere zerbitzarien pausoak ezagutzen. Haiei bizkarra emanaz ere, bazekien erabakien pauso erabakia, losintxarien saltotxoak eta izutuen pauso arin, hegalaria bereizten. Ez zuen pauso zuzenik entzuten.

Oraingo honetan laguntzailea segurtasunez zebilen, sendo jotzen zuen lurra. Paulo Petrovitx burua jiratu zuen.

Landa-laguntzailea bionboaren erdiraino sartu eta burua makurtu zuen.

–Maiestatea. Aipatu tenientea izan zen “Guardia” oihu egin zuena.

–Nor da hori?

Beldurra gutxitzen ari zen, bazeukan izen bat.

Landa-laguntzaileak ez zuen espero galdera hori, eta atzera egin zuen pixka bat.

–Guardiarako izendatutako tenienteordea, Maiestatea.

–Zertarako egiten zuen oihu? —enperadoreak ostiko bat eman zuen lurrean—.

Esan, esan.

Landa-laguntzailea isildu egin zen.

–Ergelkeria batengatik —erantzun zion zezelka.

–Egizu ikerketa bat eta, ongi zigortu ondoren, ttpa-ttpa zuzen Siberiara.

9

Horrela hasi zen Aiphatu tenienteordearen bizitza.

Bulegariak agindua kopiatu zuenean, idatz-akats bat zen Aiphatu tenienteordea, hutsegite bat, ez besterik. Gerta zitekeen inor ez ohartzea, eta paper-itsaso batean hondoratuta galtzea; eta, inori interesatzen ez zitzaionez, ez zen erraza izango etorkizuneko historialariak hartaz gogoratzea.

Paulo Petrovitxen begi oro-ohartzaileak erreparatu egin zuen eta hizki bakar batez nolabaiteko bizitza bat eman zion: hutsegite batek aurpegirik gabeko tenienteorde bat sortu zuen, familia-buru bat.

Ondoren, landa-laguntzailearen gogoeta etenen artean aurpegi bat zirriborratuz joan zen, ozta-ozta egiazkoa, ametsezkoa bezala. Hura zen palazioko leihoaren azpian “guardia” oihu egin zuena.

Orain aurpegi hura trinkotu eta zehaztu egin zen: Aiphatu tenienteordea oinaze-zaldira edo, hobeto esanda, torturatzera eta Siberiara deportatzera kondenatutako gaizkile bat suertatu zen.

Horixe zen errealitatea.

Bulegariaren arazo bat, komandantearen nahasmen aldi bat eta landa-laguntzailearen ateraldi bat izan zen une horretara arte.

Gaurtik aurrera, oinaze-zaldia, zigorra eta Siberiarako bidaiak ziren hari zegozkion egitekoak.

Agindua bete egin behar zen. Aiphatu tenienteordea erakunde militarretatik kanpora egotzi behar zen eta erakunde judizialetera bidali, eta handik Siberiara zuzen-zuzen.

Eta halaxe egin zuten.

Ustez egon behar zuen erregimentuan, komandanteak, guztiz lur jota zegoen pertsona batek baizik eduki ezin duen ahots batez, Aiphatu tenienteordearen izena hotsegin zuen soldaduen aurrean.

Alde batean oinaze-zaldia prest zegoen, eta guardiako bi soldadu zeuden burutik eta oinetatik hedeez eusten. Guardiako bi soldaduk enbor leun bat zigortzen zuten alde banatatik, hirugarrena zenbatzen ari zen, eta erregimentua begira.

Enborra lehendik ere mila zigorkadaz leunduta zegoenez, oinaze-zaldiak ez zirudien hutsik zegoenik. Gainean inor ez bazegoen ere, norbait balego bezalaxe zen. Soldaduek bekozko ilunez begiratzen zioten oinaze-zaldi isilari eta komandantea gorri-gorri zegoen zigorra bukatu zenerako, eta sudur-zuloak handituta zeuzkan beti bezala.

Orduan hedeak askatu zituzten: eta oinaze-zalditik norbaiten bizkarra askatu

balute bezala zirudien. Bi soldadu ondoratu eta agindu-zain geratu ziren.

Beren bideari ekin zioten, erregimentutik pauso beti-berdinez urrunduz, armak bizkarrean eta aldiari behin begi-ertzez begiratu, ez elkarri, beren arteko tarteari baizik.

Ilaran bazen gudarostean artean aspaldi ez zela sartutako soldadu gazte bat. Interes handiz begiratu zuen zigorra nola betetzen zen. Gertatu ari zen guztia gauza normala zela eta soldadutzan maiz gertatu zela uste zuen.

Gauean, ordea, kamainan iraulka hasi zen bat-batean, eta ondoan etzanda zeukan guardiako soldadu zaharri ahots beheran galdetu zion:

–Aizak, nor duk gure enperadorea?

–Paulo Petrovitx, ergela –erantzun zion zaharrak izututa.

–Eta hik ikusi duk?

–Bai, ikusi diat –erantzun zion zaharrak marmarka–, eta hik ere ikusiko duk.

Isildu egin ziren. Baina soldadu zaharrak ezin zuen lo hartu. Iraulka ari zen. Hamar minutu inguru joan ziren.

–Zergatik galdetzen duk hori? –galdetu zion bat-batean zaharrak gazteari.

–Ez zakiat –erantzun zion gogo onez gazteak–, zeren esaten dutenez, esaten dutenez: ez omen dakite nor den enperadorea. Nork jakin, esan egiten dute...

–Ergela –esan zuen soldadu zaharrak eta beste aldera begiratu zuen–, hago isilik, baserritarra dirudik.

Beste hamar minutu joan ziren. Pabilioia ilun eta isilik zegoen.

–Baduk –esan zion bat-batean zaharrak gazteari belarrira–, baina ordeztu egin diate.

10

Siniukhaiev tenienteak arretea handiz behatu zuten egun horretara arte bizi izandako gela.

Gela zabala zen, sabai apalekoa, tarteko adin bateko pertsona bat, betaurrekoduna eta motots ez oso handi bat zuena, agertzen zen erretratu batekin. Tenientearen aita zen, Siniukhaiev sendagilea.

Gatxinan bizi zen; tenientea, ordea, erretratuari begiratzean, ez zen oso seguru sentitzen horretaz. Agian bai, bizi zen, agian ez.

Ondoren Siniukhaiev tenientearenak izandako gauzei begira egon zen: maitasun-oboera, bere zurezko kutxan, ile-kizkurgailuak, hautsontzia, hondar-ontzia, eta gauza haiek begira zegozkion. Begiak haietatik kendu zituen.

Gelaren erdian zutik zegoen, zerbaiten zain. Ordenantzaren zain ez, seguru asko.

Bien bitartean, ordea, ordenantza bera sartu zen kontuz gelan eta tenientearen ondoan zegoen geldirik. Ahoa zabal samar zeukan eta tenienteari begira zegoen.

Beti egoten zen horrela, seguruena, aginduen zain, baina tenienteak lehenengo aldiz ikusiko balu bezala begiratzen zion, eta begiak jaitsi zituen.

Heriotza aldi batez ezkutatu beharra zegoen, krimena balitz bezala. Iluntze aldera mutil gazte bat sartu zen gelan, maitasun-oboearen kutxatxo zegoen mahaian eseri zen, kutxatxotik atera zuen, putz egin zuen eta hotsik atera ez zionez, bazter batean utzi zuen.

Ondoren, ordenantzari deitu eta edateko zerbait ateratzeko esan zion. Behin ere ez zion begiratu Siniukhaiev tenienteari.

Tenienteak ahots kikilduz galdetu zuen:

–Nor zara zu?

Mutilak, tragoa edanda, aharrausi eginez erantzun zion.

–Senatu ondoan dagoen kadete-eskolako lege-aholkularia –eta ohea prestatzeko agindu zion ordenantzari. Erantzten hasi zen eta Siniukhaiev tenientea luzaro egon zen begiratzen lege-aholkulariak nolako trebezia kentzen zituen oinetako botak, nola jaurtitzen zituen kolpe batez, nola askatzen zituen botoiak eta nola estaltzen zen ondoren manta batez eta nola aharrausi egiten zuen. Azkenik, nagiak atereaz, Siniukhaiev tenientearen eskura begiratu zuen bat-batean, eta lihozko zapi bat atera zuen mahukatik. Sudurra garbitu ondoren, aharrausi egin zuen berriro.

Orduan bere baitaratu zen azkenean Siniukhaiev tenientea, eta axola gabe esan zuen arauz kontrakoa zela hori.

Lege-aholkulariak axolagabe erantzun zion ezetz, alderantziz, arauzkoa zela,

ordezkari gisa zegoela han, Siniukhaiev ohia “bizirik hilda bezala” zegoenez, eta tenienteak ken zezala uniformeak, nahiko txukuna zelako lege-aholkulariarentzat, eta jantz zezala uniforme erreus bat.

Siniukhaiev tenientea uniformeak erantzten hasi zen, lege-aholkulariak lagundu egin zion, Siniukhaiev ohia behar bezala egiteko gauza ez zelako.

Orduan, Siniukhaiev ohiak uniforme erreusa jantzi eta zutik geratu zen, lege-aholkulariak eskularruak ere kenduko ote zizkion beldurrez. Eskularru hori, luze batzuk zituen, behatz luze koskekikoak, uniformekoak. Eskularruak galtzea desohorea zen, entzuna zuenez. Teniente-eskularruak badituzu, berdin dio zer falta duzun, tenientea zara. Horregatik, Siniukhaiev ohiak eskularruak jantzi, biratu eta kanpora atera zen.

Gau osoan ibili zen San Peterburgoko kaleetan, inon sartzen saiatu ere gabe. Goizerako nekatuta zegoen, eta lurrian eseri zen, etxe baten ondoan. Minutu batzuek lo egin zuen, gero derrepente jaiki eta alde egin zuen, alboetara begiratu gabe.

Berehala atera zen hiri-mugatik kanpora. Hesi-ateko torschreiber logaletsu batek [idazkari batek (alemanieraz)] haren deitura idatzi zuen, arreta gabe.

Kuartelera ez zen gehiago itzuli.

Landa-laguntzailea maltzurra zen eta inori ez zion ezer esan ez Aiphatu tenienteordeaz, ez bere zoriaz. Bazituen etsaiak, denek bezala. Horregatik, hain zuzen, “Guardia!” oihua nork egin zuen jakin zela baizik ez zien esan batzuei.

Baina horrek mugimendu bitxi bat eragin zuen palazioko emakumezkoen aldean.

Palazioa, klabezina jotzen duten behatz finak bezalako zutabe mehe garaiekin, Cameronek eraikia zen; bazituen bi hegala oker aurrez aurre jarriak, katuak saguarekin jolasean ari denean hankak eduki ohi dituen bezala. Hegal horietako batean fraulein Nelidova ezkongabea bizi zen, bere langileekin.

Paulo Petrovitx maiz joan ohi zen hegala hartara, errudun itxuraz guardia saihestuz, eta inoiz zentinelek ikusi ere ikusi zuten enperadorea handik lasterka irteten, ileordea alde batetik zintzilik, eta emakume baten txapin bat buru atzetik hegan zihoakiola.

Nelidova ohorezko dama baino ez bazen ere, bazituen bere ohorezko damak.

Eta, hain zuzen ere, “Guardia!” oihu egin zuena harrapatu zutelako berria emakumeen hegala iritsi zenean, Nelidovaren ohorezko dametako bat konortea galduta erori zen.

Nelidova bezala, ile-kizkurra eta argala zen hura ere, artzaintxo bat bezala.

Elisabeta amonaren garaietan ohorezko damen artean haien brokatuen hotsa, zetaren fru-frua entzuten zen, eta haien artetik titiburu askatuak atera ohi ziren herabez. Horrela zen moda orduan.

Gizonezko jantziak, isatsak eta titiburuen ondoan belusezko itsas-izarrak erabiltzea gustatzen zitzairen amazonak tronua usurpatzailearekin batera desagertu ziren.

Orain artzaintsa gazte ile-kizkurak ziren emakumeak.

Horrela bada, haietako batek ondoez labur bat izan zuen.

Bere babesleak lurretik jaikiarazi eta oneraturik, berak kontatu zuen: ordu horretarako maite-hitzordu bat jarrita zeukan ofizial batekin. Baina ezin zuen goiko solairutik alde egin eta, leihotik begira zegoela, non ikusten duen ofizial sutsu hura, erresalbu oro ahazturik eta, jakin gabe beharbada, enperadorearen leihopean bertan zegoela, eta keinuak egiten zizkiola behetik.

Berak keinu bat egin zion eskuaz, izutu itxura egin zion begiez, baina arbuio-keinutzat hartu zuen, nonbait, galaiak eta penaz oihu egin zuen: “guardia”.

Une horretan, izuaren mende erori gabe, behatzak sudurrera eraman eta beherantz seinalatu zuen. Sudur-keinu horren ondoren, ofiziala harri eginik geratu zen eta ezkutatu egin zen.

Ez zuen gehiago ikusi, baina bezperako maitasun-jokaldi hura hain laburra izanik, haren deitura ere ez zuen jakin.

Orain harrapatu egin zuten eta Siberiara bidaltzen zuten.

Nelidova pentsatzen hasi zen.

Bere egoera okertzen ari zen eta, aitortu nahi ez bazuen ere, bere txapinak ez zuen hegan egiten dagoeneko.

Landa-laguntzailearekin hotz jokutzen duen, eta ez zuen traturik nahi harekin. Enperadorearen sentimenduez bazituen zalantzak. Horrelakoetan, zibila izanik ere aginpidea zuen pertsona bakarrarengana jo ohi zuen orain, Yuri Aleksandrovitx Neledinsky-Meletsky-rengana.

Halaxe egin zuen, eta kamera-lekaio bat bidali zion idatzi batekin.

Ez zen lehendabiziko aldia kamera-lekaio sendo hura bidaltzen ziona, baina beti harritzen zen gizon ahaltzu haren miseriaz. Meletsky abeslaria eta estatu-idazkaria zen. “Errekasto lasterrak” abesten zuen, eta agure lizuna zen neskato artzaintxoekin. Txikia zen, ahoa ezti-jario eta bekainak iletsuak zituen. Gainerakoan gizon maltzurra zen eta, kamera-lekaioari behetik gora begiratu, esan zion:

–Esaiozu zertaz kezkatu ez dagoela. Itxaroteko. Dena konponduko da.

Baina berak ere bazuen beldur pixka bat, ez baitzekien nola konponduko zen hura dena, eta atetik lehenago Avdotia deitzen zuten eta orain Selimena deitzen zuten artzaintsa gaztea agertu zenean, amorru bizian mugitu zituen bekainak.

Yuri Aleksandrovitxen zerbitzariak artzaintsa gazteak ziren gehienbat.

12

Zentinelak aurrera eta aurrera zihoazen.

Muga-hesi batetik hurrengora, postu batetik hurrengo gotorlekura, zuzen-zuzen zihoazen, eta kontu handiz begiratzen zuten aldian behin bien artean zeramatzen tarteari.

Ez zuten deportatu bati Siberiara lagundu behar zioten lehen aldia, baina inoiz ez zitzaien suertatu hura bezalako gaizkile bat eraman beharra. Hiriko mugetatik atera zirenean, zalantza zuten. Ez zen kate-hotsik entzuten, eta ez zuten inor fusil-ipurdiaz joz bizkor ibiltzera behartu beharrik. Baina gauza ofizial bat zela pentsatzen zuten, eta bazituztela paperak. Ez zuten askorik hitz egiten, debekatuta zegoen-eta.

Lehenengo postuan, erotuta baleude bezala begiratu zien posta-begirariak. Baina zentinelak zaharrenak atxilotua sekretua zela eta giza itxurarik ez zuela zioen papera erakutsi zion, eta begiraria mugitzen hasi zen eta hiru kamainako gela berezi bat izendatu zien gaua igarotzeko. Ez zuen haiekin hitz egin nahi izan eta halako moduan lausengatu zituen, non, ia ohartu ere gabe, zein garrantzitsuak ziren ohartu baitziren.

Bigarren postua handiagoa zen lehenengoa baino; ziurtasunez sartu ziren, isilik, garrantzi-plantaz, eta zentinelak zaharrenak papera komandantearen mahai gainera bota zuen, besterik gabe. Eta hura lehenengoa bezalaxe moldatu zen, eta hark bezala losintxatu zituen.

Poliki-poliki garrantzi handiko gaizkile bat zeramatela ohartzen hasi ziren. Ohitu egin ziren, eta beren artean, garrantzia emanez, “bera” edo “hori” esaten zuten.

Halaxe sartu ziren Errusiar Inperioaren barren-barrenean, Vladimir-eko bide zuzen eta jendetsuan zehar.

Eta beren artean egonarri handiz zeramatzen tartea ere aldatuz zihoan: batzuetan haizea, hurrena hautsa, uda bukaerako bero sapak ahitutako ibilera nekatua.

13

Bien bitartean, Vladimir-erako bide horretatixe, garrantzi handiko agindu bat zihoakien segika, posturik postu, gotorlekurik gotorleku.

Yuri Aleksandrovitx Nedelensky-Meletskyk esana: itxaron, eta ez zebilen oker, horretan.

Zeren Paulo Petrovitxen izularria, geldiro baina segurki, bere buruaren erruki, samurtasuna bilakatuko baitzen.

Enperadorea lorategiko piztia itxurako zuhaixkei bizkarra emanda baitzebilien hara-hona, eta Cameronen sentimendu samurretara bihurtzen zen.

Bere mende jarriak zituen bere amaren gobernari eta jeneral guztiak, beren etxaldeetan sartu zituen eta han zeuzkan atxilotuta. Beharturik egin zuen hori. Eta zer? Hutsune handi bat egin zen inguruan.

Kexu- eta gutun-postontzi bat jarri zuen palazio aurrean, zeren bera baitzen, eta ez beste inor, aberriaren aita. Hasieran postontzia hutsik egoten zen, eta tristatu egiten zuen horrek, aberriak aitarekin hitz egin behar duelako. Gero aitaxo sudurmotz deitzen zioten eta mehatxatzen zuten sinatu gabeko gutun aurkitu zuten postontzian.

Ispiluan begiratu zuen.

–Sudurmotza, hori bai, sudurmotza –esan zuen ahots erlastuz, eta postontzia kentzeko agindu zuen.

Bidaia bat hasi zuen aberri arrotz horretan zehar. Bere probintzian enperadorea igarotzeko zubi berriak eraikiarazi zituen gobernaria Siberiara bidali zuen. Bidaia hura ez zen amarena bezalakoa izan: zeuden bezala utzi behar ziren gauzak, apaindu gabe. Baina aberriak isilik jarraitzen zuen. Volga ibaian nekazari pila bat bildu zen behin inguruan. Mutil bat ibaiaren erditik ura ateratzera bidali zuen, ur garbia edateko.

Ur hartatik edan eta ahots erlastuz esan zien nekazariei:

–Zuen uretatik ari naiz edaten. Zeri begiratzen diozue horrela?

Eta inguru guztia hustu zen.

Ez zuen beste bidaiarik egin eta postu bakoitzean postontzi bana jarri ordez, zentinela sendoak jarri zituen; baina ez zekien fidatzekoak ziren ala ez, eta ez zekien zeinengandik begiratu behar zen.

Saldukeria eta hutsunea zuen inguruan.

Haiengandik libratzeko sekretua aurkitu zuen; eta puntualtasuna eta erabateko mendekotasuna sartu zituen. Kantzilergoek lanari ekin zioten. Botere betearazleaz baizik ez zela arduratuko uste zen. Baina botere betearazleak kantzilergo guztiak nahasten zituenez, imajinazio hutsezko saldukeriak, hutsunea eta itxura hutsezko

mendekotasuna izan ziren ondorioak. Olatu haserrean artean igerian eskuak jasotzera behartutako igerilaria zela iruditzen zitzaion; inoiz ikusia zuen grabaturen batean.

Eta, bien bitartean, errege absolutu bakarra zen, urte luzeen ondoren.

Eta bere aitarengan bermatzeko desirak larritzen zuen, aspaldi hila bazen ere. Bere aita omen zen eta sardexka batez hil zuten alemaniar ergela hilobitik atera eta tronuaren usurpatzailearenaren ondoan jarri zuen haren zerraldoa. Baina hori ama hilarenganako mendekuz areago egin zen, hura bizi izan zen artean bera edozein unetan hil behar balute bezala bizi izan baitzen.

Ama izan zuen, gainera?

Gauza lausoren bat entzuna zuen bere jaiotzaren eskandaluaz. Familiarik gabeko pertsona bat zen, hildako aita bat, hildako ama bat ere ez zuena.

Horretan guztian inoiz ez zuen pentsatzen, eta prest zegoen horrelako susmorik onartzen zutenei kanoiz tiro eginarazteko.

Baina horrelakoetan bere Trianongo bihurrikeriatxoak eta txinatar etxetxoak ere atseginak iruditzen zitzaizkion. Izadiaren adiskiderik handiena bihurtzen zen eta maitasun unibertuala nahi izaten zuen, norbaitek maitatzea, besterik ez bazen.

Hori dena erotzeraino puztu zen eta orduan zakarkeria zinezkotasuntzat hartzen zen, ergelkeria zintzotasuntzat, maltzurkeria jatortasuntzat, eta botinak lustratzen zizkion turkiar soldadua konde izatera iritsi zitekeen.

Yuri Aleksandrovitxek usaimen fina izan zuen beti aldaketetarako.

Astebete itxaron zuen eta usaina hartu zuen.

Pauso arin baina alaiez zapaltzen zuen beirazko bionboaren inguruan eta Aiphatu tenienteordeari buruz zekien guztia bat-batean jaulki zion enperadoreari, sudurmotzaren seinalearena salbu, jakina.

Orduan enperadorek halako zaunkak, txakurrarenak bezalakoak, halako algara mozkor, etenak egin zituen, non norbait uxatzen ari zela baitzirudien gehiago.

Yuri Aleksandrovitx kezkatu egin zen.

Nelidovari atsegina eman nahi zion, etxeko lagun gisa, eta bere balioa adierazi, bide batez, zeren alemaniar esaera batek dioen bezala, bidaia batean umsonst ist der Tod, heriotza baizik ez da doan. Baina horrelako algarak bigarren mailako paper bat betetzera ere eraman zezakeen Yuri Aleksandrovitx, eta suntsitzeko baliabidea ere izan zitekeen.

Trufa anker bat ez zen izango, bada?

Ba ez, enperadorea barreak lehertzen ari zen. Luma bati heldu zion eta Yuri Aleksandrovitx, oin puntetan jarrita, enperadorearen eskuaren atzetik irakurtzen ari zen:

AIPHATU TENIENTEORDEA, SIBERIARA DEPORTATUA, ITZUL BEDI, IZENDA BEDI

TENIENTE ETA EZKON BEDI OHOREZKO DAMAREKIN.

Eta, hori idatzirik, enperadoreak pozarren egin zuen gelaren itzulia.

Txalo bat egin, gehien gustatzen zitzaion abestia abesten hasi eta ziztuka ekin zion:

Izeidi, izeidi nirea,

Nire urkidi trinkoa...

Eta Yuri Aleksandrovitxek, ahots mehe, gozoz jarraitu zuen:

Liruliru-li.

Hozka egin dioten zakurrak landara irten eta hantxe sendatu nahi izaten du belar garratzez.

Siniukhaiev tenientea oinez joan zen San Peterburgotik Gaxinara. Aitarengana joan zen, ez laguntza eske, Gaxinan aita bazuen ala ez zuen egiaztatzeko gogoz baizik, agian. Aitak agurtu zuenean, ez zion ezer erantzun, ingurura begiratu eta alde egiteko prest zegoen, uzkurtuta zegoelako eta are muzinkeriak ere egiten zituelako.

Baina sendagileak, haren jantzien hondamena ikusita, eserarazi eta egia jakin nahian hasi zen:

–Jokoan galdu duk ala behar ez zenen bat egin duk?

–Ez nago bizirik –erantzun zuen bat-baten tenienteak.

Sendagileak pultsua hartu zion, izainei buruz zerbait esan zuen eta zer gertatu zitzaion jakin nahiz jarraitu zuen.

Bere semeari zegozkion hutsegiteen berri jakin zuenean, hunkitu egin zen, ordubetez aritu zen eskaera bat idazten eta berridazten, semea eskaria sinatzera behartu zuen eta hurrengo egunean Araktxeiev baroiarengana jo zuen, egun hartako txostenekin batera aurkez zezan. Semea etxean edukitzeak lotsa ematen zion, ordea; ospitale militarrean sartu zuen eta oheburuko oholean idatzi zuen:

Mors occasionalis

Ustekabeko heriotza

Araktxeiev baroiari kezka eragiten zion estatuaren ideiak.

Horregatik, hain zuzen, haren izaera ez zen askorik makurtzen ideia hori zehaztera, barreiatua zen. Baroia ez zen gorrotatzailea, onbera ere izaten zen inoiz. Historia tristeren bat kontatzen ziotenean, malkoak ateratzen zitzaizkion, haur bati bezala, eta, lorategiaren itzulia eginik, kopek bat ematen zion lorategiko neskatoari. Gero, lorategiko bidetxoak erabat garbituta ez zeudela ohartzen bazen, neskatoa zigortzeko agintzen zuen. Zigorkadak eman ondoren, bost kopekeko txanpon bat ematen zion.

Enperadorearen aurrean maitasunaren antzeko ahulezia bat sentitzen zuen.

Garbitasuna gustatzen zitzaion, huraxe zuen bere izaeraren ikurra. Baina zikin-punturen bat aurkitzen zuenean, orduantxe zen zorionsua, eta aurkitu ezean, behazundu egiten zen. Haragi berria jan ordez, gatzartua jaten zuen beti.

Adigalkorra zen, filosofo bat bezala. Eta, egia esateko, alemaniar zientzialari batzuek antz apur bat aurkitu zuten haren begien eta orduan Alemanian fama handia zuen Kant filosofoaren begien artean: malkotsuak ziren, kolore zehazgabe batekoak eta errezel garden batez estaliak. Baroia, ordea, sumindu egin zen norbaitek antz hori aipatu zionean.

Xuhurra izan ez ezik, distiratsu eta beti bere itxurarik onenean agertzea gustatzen zitzaion. Horretarako, etxeko ekonomiako xehetasunik apurrenetan ere sartzen zen. Kapera, domina, irudi proiektuetan eta jateko gastuetan ere sartzen zen. Ikaragarri gustatzen zitzaizkion zirkuluak, elipseak, hiru isatseko zigorretan larru-zerrendak bezala txirikordaturik, begia engaina zezaketen marrak. Eta bisitariak edo enperadorea bera engainatzea eta besteak bera engainatu nahi zuenean ezikusiarrena egitea gustatzen zitzaion. Hura engainatzea ez zen erraza, jakina. \$\$

Bere jendearen gauzen inbentario zehatz-zehatza zeukan, hasi kamera-laguntzailearengandik eta sukaldeko laguntzailearenganaino, eta ospitaleko inbentario guztiak egiaztatzen zituen.

Siniukhaiev tenientearen aitak lan egiten zuen ospitalea antolatzeaz gainera, baroiak berak agintzen zuen nola jarri oheak, non aulkiak, non egon behar zuten barneko sendagileen mahaitxoek, eta baita zer itxura izan behar zuen lumak, soila alegia, mototsik gabe, erromatar calamus-aren –kanaberaren– moduan. Luma zorrotu motosduna edukitzeagatik, bost zigorkada irabaz zitzakeen erizain batek.

Erromatar estatuaren ideia biziki interesatzen zitzaion Araktxeiev baroiari.

Horregatik, arretarik gabe entzun zion Siniukhaiev sendagileari eta, hark eskaera

luzatu zionean, orduan irakurri zuen arretaz, eta kargu hartu zion dokumentuaren sinadura ezin irakur zitekeelako.

Semeari eskuak ikara egiten ziolako aitzakia eman zion sendagileak.

–Ai, adiskidea, ikusi –erantzun zion baroiak pozik–, eskuak ikara egiten dio.

Ondoren, sendagileari begiratzuz, galdetu zion:

–Eta noiz hil zen?

–Ekainaren hamabostean –erantzun zion sendagileak, txunditurik.

–Ekainaren hamabostean –jarraitu zuen baroiak pentsakor–, ekainaren hamabostean... Gaur hilak hamazazpi ditu –esan zion bat-batean sendagileari bertatik bertara–. Eta non egon da hildakoa bi egun hauetan?

Medikuaren aurrean irribarre maltzur bat eginez, eskaerari garraski begiratu eta esan zuen:

–Hortxe hutsegitea. Orain alde, adiskidea, alde.

16

Meletsky abeslari eta estatu-idazkariak zorira jokatzeko egiten zuten eta maiz irabazten zuten, beti balakuz jokatzeko zuelako, Cameronen koloreen modura, baina irabaziak galera bilaka zitezkeen, laukote-jokoan bezala.

Araktxeiev baroiak bestelako ohitura zuten. Hark ez zuten arriskurik hartzen, ez ezerekin bermerik ematen. Oso bestela baizik, gehiegikeria guztiak salatzen zituen enperadorearentzako txostenetan, eta haiek zigortzeko baliabideak eskatzen zituen ondoren. Meletsky lortzeko arriskatzeko zen ezeztapena, baroiak bere kabuz egin zuten. Irabaziak urrutitik handia zirudien, itsasargiaren jokoan bezala.

Enperadoreari argi eta garbi jakinarazi zion Siniukhaiev teniente zena Gaxinan azaldu zela eta ospitalera bidali zutela. Horrenbestez garbi geratzen zen bizirik zegoela, eta berriro gudarostertzeko eskaria aurkeztu zion. Eta halaxe igortzen da eta dagokion ebazpena eskatzen. Dokumentu horren bitartez bere apaltasuna erakutsi nahi zuten, gauza guztiak ugazabari galdetzen zizkion zerbitzariaren moduan.

Bizkor iritsi zen erantzuna, bai eskariari bai Araktxeiev baroiari bereziki.

Eskariari ebazpena gehitu zitzaion:

Siniukhaiev teniente ohiari, hil izanagatik armadatik lizentziatuari, eskaria ukatua, horrexegatik.

Eta Araktxeiev baroiari ohar bat bidali zitzaion:

Araktxeiev baroi jauna.

Harritu nau zuk, jeneral maila izanik, ez ezagutzeak ordenantza, eta Siniukhaiev teniente zenaren eskaria niri zuzenean bidali izanak eta ez haren erregimentuari, teniente hori dagoen erregimentuko kantzilergoari bidali behar baitzitzaion hasieratik eta ez ni kargatu horrelako eskakizunez.

Gainerakoan, zure zerbitzurako.

Paulo.

Ez zuten esaten "beti zure zerbitzurako".

Eta Araktxeievi malkoak atera zitzaizkion, horrelako kargu hartzeak ezin baitzituen onez eraman. Bera joan zen ospitalera eta teniente hila handik kanpora bidaltzeko, jantzi zibilak emateko eta inbentarioan jasota zeuden ofizial jantziak kentzeko agindu zuten.

Aiphatu tenientea Siberiatik itzuli zenerako, askok zekiten haren berri. Enperadorearen leihopean "Guardia" hots egin, zigortu eta Siberiara deportatu, eta gero barkatu eta teniente izendatutakoa zen. Horiek ziren haren bizitzari buruzko datu seguru bakarrak.

Komandanteak ez zuen inolako arazorik harekin, eta behin guardiarako, hurrengoan zerbitzurako izendatzen zuen. Erregimentua desfilatzeko eremuan agertzen zenean, tenienteak ere parte hartzen zuen. Ereduzko ofiziala zen, harengan inolako okerrik sumatzen ez zelako.

Bere ondoez laburraren bidez tenientea salbatu zuen ohorezko dama poztu egin zen hasieran, ustekabeko maitale batekin elkartzen zutelako. Tantoa jarri zuen masailean eta elkartzen ez ziren begiztak estutu egin zituen. Gero, elizan, bakarrik zegoela ohartu zen, eta laguntzaileak hutsune baten gainean zeukala koroa bere ondoan. Berrito ondoezik erori nahiko zukeen, baina begiak apaldu eta bere gerria ikusi zuenean, iritziz aldatu zuen. Askori gustatu egin zitzaien misterio hura, senargaia ezteizeremonian ez egotea.

Eta handik aldi batera Aiphatu tenienteak seme bat izan zuen; aitaren antza omen zuen.

Enperadoreak ahaztu egin zuen. Egiteko asko zuen bestela ere.

Nelidova bixkorra abandonatu eta haren lekua Gagarina mardulak betetzen zuen orain. Cameron, suitzar etxetxoak eta Pablosky bera ere ahaztuta zeuden. Militarren San Peterburgo mozkoatea adreilu desfile baten moduan zetzan. Suvorov, enperadoreak maite ez baina, Potemkin zenarekin haserre egon zelako, jasan egiten zuena, bere landako bakardadetik atera zuten. Beste kanpaina bat zetorren, eta enperadoreak bere asmoak zituen. Asmo ugari, eta askotan bata bestearen ondoren pilatzen zirenak. Paulo Petrovitx alboetara zabaltzen ari zen, eta altueraz mozten. Aurpegia adreilu-kolorekoa ari zitzaion bihurtzen. Suvorovek berrito galdu zuen uste ona. Enperadoreak geroz eta gutxiagotan egiten zuen barre.

Behin erregimentuaren zerrendak berrikusten ari zela, Aiphatu tenientearen izena topatu zuen eta kapitain izendatu zuen, eta beste batean koronel. Tenientea oso ofizial arretatsua zen. Gero berrito ahaztu zuen enperadoreak.

Aiphatu koronelaren bizitza ezertan nabarmendu gabe zihoan aurrera, eta denak moldatzen ziren hartara. Etxea bulegoa zuen, kuartelean bazuen bere gela, eta batzuetan txostenak eta aginduak eramaten zizkioten, eta ez ziren askorik harritzen koronela han ez zegoelako.

Erregimentuari agindu ere egiten zuen.

Birentzako ohe erraldoian ongien sentitzen zena ohorezko dama zen. Senarra promozioetan gora zihoan, eroso lo egiten zuen, eta semea hazten ari zen. Batzuetan tenienteren batek, kapitainen batek edota zibilen batek berotzen zuen koronelaren lekua. Gauza bera gertatzen zen San Peterburgoko koronel askoren oheetan, jabeak kanpainan zirelarik.

Behin, maitale nekatu bat lotan zegoela, ondoko gelan kirrinka-hotsa entzun zuela iruditu zitzaion. Berrito errepikatu zen kirrinka-hotsa. Lurra arrakalatzan ari zen, inondik ere. Andreak gizona astindu zuen, kanpora bota zuen eta atera jaurti zizkion jantziak. Ohartu zenean, bere buruaz barre egin zuen.

Baina horixe bera gertatzen zen koronel askoren etxeetan.

Nekazariak haize-usaina, emakumeak kearena.

Siniukhaiev tenienteak inori ez zion aurpegira zuzenean begiratzen, usainaren arabera bereizten zituen pertsonak.

Usainagatik aukeratzen zuen gaua non igaro, eta zuhaitzen baten gerizan lo egitea nahiago izaten zuen, zuhaizpean euriak hainbeste bustitzen ez zuelako.

Inon gelditu gabe jarraitzen zuen aurrera.

Mutiko batek “zopak egiteko” jaurtikitako harri zapalak ibaia ur-azala ia ukitu ere gabe nola igarotzen duen, halaxe igarotzen zituen Estoniako herriak. Aldian behin estoniar emakumeren batek esnea ematen zion. Zutik edan eta aurrera jarraitzen zuen. Neska-mutikoak isildu egiten ziren eta beren muki zurixken distira erakusten zuten. Herria bere atzean ixten zen.

Haren ibilera ez zen askorik aldatu. Ibiliaren ibiliz ibilera lasaitu egin zitzaion, baina ibilera lasai, ia jostailu batena zirudien hura, militarra zen hala ere, ofizial batena.

Norabidea ez zuen aukeratzen. Baina bai kalkula zitezkeela norabide horiek. Bidetik alde eginez, sigi-sagan, Uholde Handia irudikatzen duten koadroetako tximistak bezala, zirkuluak egiten zituen, eta zirkulu horiek estutuz zihoazen geldiro-geldiro.

Hala igaro zen urte bat, harik eta zirkulua puntu batean itxi eta San Peterburgon sartu zen arte. Barrura sartuta, alderik alde inguratu zuen.

Orduan hirian zehar biraka hasi zen, eta aste osotan bira berbera egiten zuela gertatu zitzaion.

Bizkor ibiltzen zen, bere ibilera militarrean beti, hankak eta oinak nahita zintzilik balerabiltza bezala.

Saltzaileek ezin zuten ikusi ere egin.

Saltokien ilararen aurretik igarotzea suertatzen zitzaionean, oihu egiten zioten atzetik:

–Etorri atzo.

–Begira nondik zabilzan.

Zori txarra ekartzen zuela esaten zuten, eta ogi-saltzaileek, haren begiradari ihes egiteko, ogi bana ematen zioten, esan gabe adostuta.

Haurrek, beti jakin izan baitute buruz sendoak ez direnen mugak sumatzen, atzetik lasterka joan eta oihu egiten zioten:

–Motza!

San Peterburgon Paulo Petrovitxen jauregiko zentinelek oihu egin zuten:

–Enperadorea lotan dago.

Oihu hori bera errepikatzen zuten alabardariak bidegurutzetan:

–Enperadorea lotan dago.

Eta dei hori entzunda, bata bestearen ondoren ixten ziren saltokiak eta oinezkoak etxeratu egiten ziren.

Gaua esan nahi zuen.

San Isaak plazan zaku-oihalez jantzitako jende multzoak, herrietatik lanerako ekarriak, suak itzali eta bertan etzaten ziren, lurrian, piltzarrez estalirik.

Alabardariak “enperadorea lotan dago” oihu egiten zutenean, haiek ere lotara joaten ziren. Petropablosky gogorlekuaren gainean ordularia bailitzan zebilen zentinela. Arrabaletako taberna batean kosako gazte bat zegoen, gerrian zuhaitz-azalezko gerrikoa zuela, zalgurdi-gidari batekin tsarraren ardo gozoa edaten.

–Aitatxo sudurmotza ez da luzerako –esan zuen zalgurdi-gidariak–, garrantzi handiko jendea eraman dut...

Jauregiko zubi altxagarria jasota zegoen, eta Paulo Petrovitx leihotik kanpora begira.

Oraingo salbu zegoen, bere uhartean.

Baina jauregian baziren berak ulertzen zituen txutxumutxu eta begiradak, eta kalean espresio bitxi batez belaunikatzen ziren bere zaldiaren aurrean. Halaxe zegoen aginduta, baina orain jendea ez zen beti bezala belaunikatzen lokatzetan. Sutsuegi belaunikatzen ziren. Zaldia garaia zen eta bera balantzaka zelan. Bizkorregi erreinatzen zuen. Jauregia ez zegoen behar bezala defendatuta, zabalegia zen. Gela txikiago bat aukeratu behar zen. Baina Paulo Petrovitxek ezin zuen halakorik egin; segituan erreparatuko zuen norbaitek. “Tabako-ontzian ezkutatu beharko nuke”, pentsatu zuen enperadoreak, tabako-hautsa esnifatuz. Ez zituen kandelak piztu. Ez zen arrastorik utzi behar. Ilunpetan zegoen, azpiko arropa hutsetan. Leihotik jendea kalkulatzen zuen. Aldaketak egin zituen, Bennisen oroimenetik ezabatu zuen, Olsufiev sartu zuen.

Zerrenda ez zen egokitzen.

–Ez dira nire kalkuluak...

–Araktxeiev ergela –esan zuen golkorako.

...–...une vague incertitude², hori du honek...

Zubi altxagarrian ozta-ozta ikusten zen zentinela.

² ...zalantza lauso bat (jatorrizkoan frantsesez).

–Ondo legoke –esan zuen, ohi bezala, Paulo Petrovitxek.

Tabako-ontzian behatz-kolpez errepikan ari zen.

–Ondo legoke –gogoratzen ahalegintzen zen, eta kolpe-errepikan jarraitzen zuen.

Egin beharreko guztia aspaldi eginda zegoen, eta ez zen aski.

–Ondo legoke Aleksander Paulovitx atxilotzea –presakatu zen, eta eskuaz ukatu zuen.

Ondo legoke...

Zer legoke ondo?

Oheratu eta mantapean sartu zen bizkor-bizkor, dena egin ohi zuen bezala.

Lo sakon batean murgildu zen.

Goizeko zazpian kolpetik esnatu zen eta gogoratu zuen: Ondo legoke berekin guztiz zorretan zegoen gizon tolesgabe eta apal bat aukeratzea, eta beste guztiak kentzea.

Eta berriro lo hartu zuen.

20

Biharamun goizean Paulo Petrovitx aginduak begiratzan ari zen. Aiphatu koronela jeneral izendatu zuten ustekabearen. Ondasun eskaka aritu ez zen koronel bat zen, ez zen igo gizarte mailetan gora osabaren baten kontura, ez zen buru-iritzia, ez berritsua. Kexurik eta zaratarik gabe betetzen zituen bere egitekoak.

Paulo Petrovitxek haren zerbitzu-orriak ekartzeko eskatu zuen. Koronela, artean tenienteordea zela, enperadorearen leihopean “Guardia!” oihu egin zuelako Siberiara deportatu zutela adierazten zuen dokumentu batean gelditu zen. Oroitzapen lauso bat etorri zitzaion eta irribarre egin zuen. Hartan bazen maitasun-istorio xarmagarri bat.

Oraintxe ederki egokituko litzaioke behar denean leihopean “Guardia!” oihu egiteko gauza zen norbait. Etxalde bat eta mila arima izendatu zizkion Aiphatu jeneralari.

Egun hartako arratsean bertan azaldu zen agerira Aiphatu jeneralaren izena. Hari buruz hitz egiten zen.

Norbaitek tsarrak Pahlen kondeari aspaldi ikusten ez zioten irribarre batez nola esaten zion entzun zuen:

–Emazkiozu dibisioak, ikusiko duzu. Garrantzi handiagoko gauzetarako behar dugu.

Bennigsen ez beste inork ez zuen aitortu nahi jeneral hari buruz ezer ez zekienik. Pahlenek begiak erdi itxi zituen.

Aleksandr Lvovitx Narixkin ganberari nagusia jeneralaz gogoratu zen.

–Bai, Aiphatu koronela... Gogoratzen naiz. Sandunovarekin zebilen...

–Desfileetan, Gorriarekin...

–Nago Olsufiev, Fedor Yakovlevitxen senitartekoa ez ote zen...

–Ez da Olsufieven senitartekoa, konde jauna. Frantziatik etorria da. Aitari plebeak lepoa moztu zion Tulonen.

21

Gauzak bizkor gertatu ziren. Aiphatu jenerala enperadorearengana deitu zuten. Egun horretan bertan enperadoreari jakinarazi zioten jenerala oso gaixo zegoela.

Enperadoreak marmarka egin zuen, amorratuta, eta botoi bat erauzi zion berri hori ekarri zion Pahleni.

Ahots erlastuz esan zuen:

–Eraman ezazue ospitalera, senda ezazue. Eta sendatzen ez bada, aizu...

Enperadorearen kamera-lekaioa egunean bitan joaten zen ospitalera haren osasunaz galdetzera.

Areto nagusian, atek erabat itxita, hara-hona zebiltzan sendagileak, ikaratan, gaixoak beraiek bailiran.

Hirugarren eguneko ilunabar aldera Aiphatu jenerala hil egin zen.

Paulo Petrovitx ez zen haserretu. Begiak malkoz lausotuta begiratu zien denei, eta urrundu egin zen.

22

Aiphatu jeneralaren hiletak luzaro gogoratu ziren San Peterburgon, eta memorialista bat baino gehiagok jaso zituzten haien xehetasunak.

Erregimentuak ikurrinak bilduta desfilatu zuen. Gorteko hogeita hamar karroza, batzuk hutsik, besteak beteta, zihoazen balantzaka segizioan. Hala erabaki zuen enperadoreak. Zenbait kuxinatan haren kondekorazioak zeramatzaten.

Zerraldo beltz, astunaren ondoren emaztea zihoan, haurra eskutik zuela.

Negarrez.

Segizioa Paulo Petrovitxen jauregiaren ingurutik igaro zenean, enperadorea geldiro atera zen zubiraino, segizioa ikustera, eta ezpata biluztua jaso zuen.

–Onenak hiltzen zaizkit.

Gero, gorteko karrozak bere ondotik igarotzean, latinez esan zuen, haiei atzetik begira.

–Sic transit gloria mundi.

23

Horrela ehortzi zuten Aiphatu jenerala, bizitza honetan egin daitekeen guztia eginik eta eduki daitekeen guztia edukirik: gaztetasuna, maite-abenturak, zigorra eta erbestea, zerbitzu-urte luzeak, familia, enperadorearen ustekabeko uste ona eta gortearen inbidia.

“San Peterburgoko Nekropolian” haren izena agertzen da, eta historialari batek baino gehiagok aipatzen du zeharbidez.

“San Peterburgoko Nekropolian” ez da agertzen Siniukhaiev teniente ohiaren izenik.

Arrastorik utzi gabe desagertu zen, erraustuta, apur-apur eginda, inoiz existitu ez balitz bezala.

Eta Paulo Petrovitx Aiphatu jenerala hil zen urte bereko martxoan hil zen, apoplexiaz, informazio ofizialaren arabera.